


Diskoak

IKER BARANDIARAN



Hil ala bizi.
Asfiksia.
Autoekoizpena.
Iraupena: 42'06".
5 euro.

Heavy-thrash-a hastapenetatik berreskuratuz

AZKEN HAMARKADAN Oñati punkaren santutegi bihurtu da, baina badira bes-telako doinuak lantzen dituzten taldeak ere, nahiz eta hain agerian ez gelditu. Esaterako, lehen Hamer eta orain gaur egun Asfiksiagatik izena duen taldea. Lau gazte hauek liluratu egiten ditu 1990eko hamarkadako thrasharen oinarriak eta Metallicaren hastapenetako gordintasuna bere egin dute, nahiz eta beti abiadura biziak ez landu; nahia-go dituzte erdizkakoak, geldoagoak

baina era berean sakonagoak. Bestalde, baina, heavyak ere badu eragina beraian eta hori errepiketan, pun-teoetan eta gehitu duten baladetako batean antzematen da. Euskara da erabiltzen duten hizkuntza, nahiz eta kante-k pasarte instrumental oso luzeak izan, eta bidegabekeriei zein desberdintasunei abesten diete batez ere, metaforen laguntzaz.

www.myspace.com/asfiksia89

Asfiksia

«Gurean txima-luzerik ez dago, baina bai gure musika zainetan daraman jendea»

Gaur egun Oñatin dagoen txima-luze talde bakarra da zuena? Bakarrik sentitzen zarete?

Egia da Oñati aldean punky dezenteko dagoela, baina heavy estiloa ere gustuko duen punky ugari dago hemen, eta gure atzetik datorren belaunaldian ere gure musika zainetan daraman jendea badago; ezin da bakarrik sentitu, hainbeste jenderen bulkada nabaritzen duzunean.

Zer da "lurperaezina", askatasun nahia?

Lurperaezina abestia Palestina eta Israelen arteko gudan oinarrituta dago. Israeldarren jokabide krudel, maltzur eta hiltzailea kritikatu nahian iradokita dago izenburu hori: Gorpuak lurperatuko dira, baina zuen jokabidea *Lurperaezina* da.

Abestiek tarte instrumental luzeak dituzte...

Ahotsaren melodia ez ezik gitarren melodia nabarmen-

tzea geneukan buruan, eta halaxe egin genuen.

"Markak galduta hankek ez dute izate legerik", "Boterearen maitasunak salatu bitartean borrokak aginduko du gizartean". Hitzak metaforaz beteta daude. Ez duzue mezu zuzenik eman nahi?

"Boterearen maitasunak salatu bitartean borrokak aginduko du gizartean" Bob Marley-ren esaldi

batean oinarrituta dago. Lehenengo esaldia lantzen den abestia, ordea, egungo gizarte "liberal" honetan suertatzen diren eta hain gertu bizi izan dugun banaketa prozesu batean iradokita dago. Seme baten gorputzean sartzen gara. Nahiago dugu bakoitzak esaldiei bere interpretazioa ematea. Guk gure lana egin dugun bezala, entzuleek ere har dezatela minutu bat hitzetan barneratzeko.



Ordainduko zenukete thrasharen urrezko urteak, 1990eko hamarkada, bete-bete bizi izanagatik?

Beti ibili gara garai haietako kontzertuak, bideoak ikusten, eta halakoetan sabelean ere kilimak sortzen zaizkigu, baina ezin dugu ahaztu gu 2010. urtean gaudela eta garai haietako ideologia eta mugimendu haiek maitagarriak izan arren, daukagunera eta garenara egokitu behar dugula. ■